

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Villasante, Irigaray, Lojendio, Arrue euskaltzaiñak. Loidi, Alvarez Emparanza, Etxaniz, Zugasti, Arruza, San Martin ta Irigoyen urgazleak. Oleaga jauna ezin etorri izan da.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Justo Garate jaunaren karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu Euskaltzaindiak urgazle izentau dauelako. Lan bat be bialdu dau: "Pablo Astarloa. Extracto Humboldtiano de su plan de lenguas".

Gabriel Villalabeitia jaunak gura dau Euskaltzaindiak agiri bat emon deion Derioko kanposantuan iminteko gogoagaz dabilen irakurgai bat erdarara ondo itzulita dagoela esanik. Emon bekio.

Bizkaiko Ahorro-Kaxearen karta bat irakurri da. Bertan adierazoten deuskue amairu milla peseta ta kopa bat emotea erabagi dabela Bizkaiko bertsolarien irugarren txapelketearen sarietarako. Eskerrak emon bekiez.

Mario Lizarazu Colombia-n bizi dan jaunaren karta bat irakurri da. Euskera artu dau eta aren alde goramen biziak egiten ditu eta artu dituen aleak pagetako len bialdu ebanaz gaiñera ogei dolar bialtzen ditu Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak emon bekioz biotzez.

Bilbon, igaz asita, lagun batzuk euren artean ekin deusie illero illero dirua batuen Euskaltzaindiak Bizkaiko neska mutillentzat ipiñita eukan sariketako sariak obeto orniduteko asmoagaz. Igaz Euskaltzaindiaren kaxan zerbait sartu eben. Orain zazpi milla ta bosteun peseta sartu dituez. Esamiña orreik Bagillaren 2-an egin dira Indautxuko Aita jesuiten kolejoan, orretarako itxi deuskuen gela batean. Oraindiño sariak eztira emon. Aita Cortabitarte izan da sariketearen oiñarriak aipatzen dituen amar milla pesetak ornidu dituana. Berrogei ume etorri direan ezker lenengo aipatu direan lagun orreik Euskaltzaindiaren kaxan sartu daben diru guztia ezta bearko. Sobretan dana gure esku isten dabe gura dana egiteko. Itxi bedi diru ori gauza bardiña edo zerbait bardintsua dan arazoan baterako. Eskerrak emon bekiez lagun orreiri, Josu Egia jaunari guztien izenean. Baita Aita Cortabitarte-ri be.

Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat, Durango aldekoentzat, Urkiola-n egin da Bagillaren 19-an.

Aurtengo *Euskal kantak* liburutxoa, Euskalerrri osoan zabaltzeko asmoagaz egin dana, agertu da.

Lecumberri-n Bagillaren 26-an egingo da alderdi aretako bertsolari nafarren txapelketa bat. Juraduarena Euskaltzaindiak egingo dau. Euskararen Aldeko Saillak

egin ditu prestaera guztiak, eta bide batez egun orretan emongo ditu alderdi aretan esamiñau direan umeen sariak.

VII.º Congresso Internazionale di Onomastica e Toponomastica a Firenze e a Pisa izenagaz egingo direan batzarren barri emonik orri batzuk artu dira. Datorren urtean izango dira Paskoetan.

Etxaide jaunak diño Mr. A. Griera-k *Vocabulario Vasco* izenagaz argitaratu dauen liburua bialdu dauela karta bategaz batera. Irakurri egin dau erantzunagaz batera. Komeni litzakeala, diño, kritika egoki bat egitea liburu orreri. Lekuona jaunari esan bekio ia artuko leukean arazo ori bere kargu.

Deva-tik karta bat artu da urrengo oneik firmetan dabela: Begoña de Andonegui, Rosarito de Landa, Conchita de Larrinaga, Pachi de Unanue, Pedro de Laca eta Iñaki de Iriondo. Diño euskerearen maitasunak eraginda irakasten jardutea pentsau dabela, eta Euskaltzaindiaren zuzenbidea eskatuten dabe. Erantzun bekie esanik oso begi onez ikusten dauela Euskaltzaindiak artu daben asmoa, eta prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko, eta orretarako bear daben eta jakin gura laukien edozer gauzari erantzuteko gelditzen dala.

Lojendio jaunak lan bat irakurri dau Euskaltzaindiaren Laguntzailleen gora beerrak aipatzen dituala. Aintzat artzen da.

Alvarez Empanza-k Euskaltzaindiaren Laguntzailleen arazoaz bialdu dauen proposiziño bat irakurri da. Etxaide jaunak oar oneik egiten ditu:

1. Badagoz or gauza batzuk oso astunak direanak, Euskaltzaindiaren arautegia aldatu bear litzakealako. Ori astiro pentsau bear dan gauzea da.

2. Euskaltzaindiak eztitu zetan izan bear diruzaintza bi, bat baiño.

3. Izen kontua ezan or aipatu bear ontzat artu barik egin gura direan aldaketak. Alvarez Empanza jaunak diño berak egin dauen proposiziño orreri bear direan aldaketa guztiak egin leiozala. Bialdu bekie kopia bana euskaltzaiñei arakatu daien.

San Martin jaunak diño berak gurago dauala Euskaltzaindiaren izenean lan egin, eta beste batasun bat sortzeko modua balego be eztauela uste Euskaltzaindiarengandik berezi bear litzakeanik. Bereizkuntza sortzea elitzakeala mesedegarri izango.

Azkenez Irun-en, udazkenean, Euskaltzaleen Biltzarra egitez berba egin da. Pedagogia artu da gaitzat. Ez euskera zelan sartu eskoletan, ezpada eskolan sartu baiño leen irakasteko oiñarriak iminteko. Iru mailla artu leitezke:

1. Ume euskaldunai zelan irakatsi euskeraz.

2. Erdaldunai zelan irakatsi euskal-izkuntza.

3. Zelan gertau euskal-irakasleak.

Aita Larrañaga apezpikua, Anai Berriotxo eta Loidi jaunen eskuetan isten da Irun-en emon bear direan pausuak emon daiezan. Datorren batzarrera ekarri beitez zeatzasun geiago.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.